


Euskal AEko BPG %2,6ko urte arteko tasaz gehitu da 2018ko hirugarren hiruhilekoan

Enpleguak segitzen du hazten, %2,0ko urte arteko igoerarekin hirugarren hiruhilekoan

2018ko hirugarren hiruhilekoan Euskal AEko BPG %2,6 gehitu da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, Eustaten datuen arabera. 2018ko bigarren hiruhilekoaren aldean, zenbatetsitako hazkundea %0,5ekoa izan da.

Hazkunde horiek berresten dituzte Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen Aurrerapeneko zenbatespenak, 2018ko iragan urriaren 30ean eskainiak, eta Euskal AEko hazkunde ekonomikoa inguruko ekonomia gehienek ginetik dute paratzen.



Eskaintzaren aldetik, **sektore produktiboen** bilakaerari erreparatuz, ikusten da jokaera hedakorra nagusi dela sektore guztietan, **Lehenean** izan ezik (**Nekazaritza, Abeltzaintza, Arrantza**), zeina %4,6 txikitu baita 2017ko hirugarren hiruhilekoaren aldean eta %5,4 2018ko bigarrenarekiko.

Industria eta Energiaren sektorean baretu da hirugarren hiruhilekoan balio erantsiaren hazkundea, urte arteko %1,9ko tasa batekin, hainbat hiruhilekotan %3ren ginetik egon ondoan. Urte arteko moteltze horrek dakar sektorearen geldialdi bat aurreko hiruhilekoaren aldean.

Manufaktura-industriaren jokamoldea sektoreak oro har duenaren antzekoa da, urte arteko %2,0ko gehikuntzarekin eta hiruhileko arteko geldialdiarekin.

BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak.
Euskal AE. %

	2016	2017	2017		2018		
			III	IV	I	II	III
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA	1,0	6,8	9,6	-2,7	-3,0	0,8	-4,6
INDUSTRIA ETA ENERGIA	4,2	3,1	3,0	3,5	3,7	3,1	1,9
Manufaktura-industria	4,3	3,2	2,9	3,4	3,9	3,1	2,0
ERAIKUNTZA	0,2	3,8	4,7	4,0	2,7	4,1	4,8
ZERBITZUAK	2,8	2,7	2,8	2,7	3,1	2,8	2,7
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	3,6	4,0	4,1	3,6	3,1	2,7	2,5
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	2,4	2,2	2,2	2,4	2,9	2,3	2,1
Gainerako zerbitzuak	2,5	2,2	2,2	2,3	3,1	3,0	3,2
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	3,0	2,9	3,0	2,9	3,1	2,9	2,6
PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA GARBIAK	6,8	2,8	2,7	3,3	3,1	2,8	2,6
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	3,3	2,9	3,0	3,0	3,1	2,9	2,6

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak
Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Eraikuntzaren sektoreak bizkortu du balio erantsiaren hazkundera 2018ko hirugarren hiruhilekoan, 2017ko aldi beraren aldean %4,8ko aldakuntza zenbatetsiarekin. Hiruhileko artean, bilakaera positiboa ere da, %1,5eko tasarekin aurreko hiruhilekoarekiko.

Zerbitzuen sektorearen aktibitate orokorrak erakusten du aurreko hiruhilekoaren antzerako eboluzio positiboa, urte arteko %2,7ko gehikuntzarekin eta hiruhileko arteko %0,5ekoarekin. Sektorean portarea oneneko adarra da **Gainerako zerbitzuak** deritzona, zeinek biltzen baititu, besteak beste, hala jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak nola finantzarioak eta aseguruak. Balio erantsia %3,2 zabaldu du 2017ko hiruhileko berarekiko eta %0,7 aurreko hiruhilekoaren aldean. Zenbatespen biok bi hamarren daude bigarren hiruhilekorako lorturikoen gainetik. **Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren** adarra era positiboan aldatu da hirugarren hiruhilekoan, nahiz eta balio erantsiaren hazkundera den bi hamarren azpitikoa aurreko hiruhilekoan hautemanikoaren aldean urte artean (%2,5ko hazkundera %2,7koaren aldean); aldiz, hiruhileko artean jokamolde hobea du aurreko hiruhilekoarekiko (%0,5eko gehikuntza hirugarren hiruhilekoan aurreko hiruhilekoko %0,3koaren ondoren). Azkenik, **Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak** adarraren balio erantsia %2,1 hazi da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean eta %0,1 2018ko bigarren hiruhilekoarekiko.

Sektore produktiboen balio erantsien batuketatik ateratzen da Euskal AEko **Oinarritzko Preziotako Balio Erantsi Gordina**, zeinak hiruhileko honetan %2,6 gora egin duen 2017ko hirugarren hiruhilekoarekiko eta %0,4 2018ko bigarren hiruhilekoaren aldean. Urte arteko hazkundera 3 hamarren azpitikoa da aurreko hiruhilekoan zenbatetsitakoaren aldean eta hamarren bat da azpitik hiruhileko artean.

Merkatuko Preziotako Barne Produktu Gordina, eskaintzaren ikuspegitik, lortzen da Balio Erantsiari gehitzean **Produktuen gainerako zerga garbiak**, zeinen balio agregatua 2018ko hirugarren hiruhilekoan %2,6 hazi baita urte arteko tasan eta %1,7 2018ko bigarren hiruhilekoarekiko.

BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2017		2018		
	III	IV	I	II	III
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA	0,0	-7,8	3,2	6,0	-5,4
INDUSTRIA ETA ENERGIA	1,2	1,2	0,6	0,1	0,0
Manufaktura-industria	1,1	1,2	0,8	0,0	0,0
ERAIKUNTZA	0,9	0,7	0,5	2,0	1,5
ZERBITZUAK	0,5	0,7	1,0	0,4	0,5
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	0,8	0,6	1,0	0,3	0,5
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	0,3	0,9	0,7	0,4	0,1
Gainerako zerbitzuak	0,5	0,7	1,2	0,5	0,7
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	0,7	0,8	0,9	0,5	0,4
PRODUKTUEN GAIKEKO ZERGA GARBIAK	1,9	-0,3	0,2	0,9	1,7
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	0,8	0,7	0,8	0,6	0,5

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Eskariaren aldetik BPGren eboluzio zenbatetsia analizatuz, ikusten da ezen, urte artean, **Barne Eskariaren** bilakaera hamarren bat dela BPGrenaren azpitik, %2,5eko hazkunde zenbatetsiarekin. Kanpo-sektorearen jokaeraren ondorioa ekonomiaren osotasunean, beraz, positiboa da, hamarren bat igoz Barne Eskariaren urte arteko aldakuntza, %2,6raino. **Ondasun eta Zerbitzuen Esportazioak** %2,2 hazi dira urte artean (%1,7 hiruhileko artean) eta **Ondasun eta Zerbitzuen Inportazioak** %2,1 gehitu dira (%1,1eko hazkunde aurreko hiruhilekoaren aldean).

Familia-etxeen Azken Kontsumoko Gastuak (Kontsumo Pribatua) aurrera segitzen du jotzen, tasa txikiagoan, guztiaz ere, aurreko hiruhilekoaren aldean. Urte arteko hazkunde-tasa %2,3koa izan da, zeinek dakarren aurreko hiruhilekoarekiko %0.3ko gehikuntza.

BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2016	2017	2017		2018		
			III	IV	I	II	III
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	3,0	2,9	2,9	2,8	2,8	2,5	2,0
Familien eta EZMADE-en azken kontsumo gastua	3,3	3,0	3,0	2,9	2,9	2,6	2,3
Herri-administrazioen azken kontsumo gastua	1,8	2,4	2,5	2,7	2,6	2,0	1,2
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	5,5	3,3	2,8	3,7	3,7	4,8	4,0
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	8,6	3,2	1,9	3,4	4,8	6,1	2,9
Gainerako kapital-eraketa gordina	3,8	3,4	3,3	3,9	3,0	4,0	4,6
BARNE-ESKARIA	3,6	3,0	2,9	3,0	3,0	3,0	2,5
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESORTAZIOAK	1,8	4,7	5,6	6,8	6,7	2,9	2,2
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	2,2	4,8	5,4	6,9	6,4	3,1	2,1
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	3,3	2,9	3,0	3,0	3,1	2,9	2,6

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Kontsumo Publikoan (HHAAen Azken Kontsumoko Gastua), aldiz, urte arteko hazkunde zenbatetsian (%1,2ko hazkunde) ikusiriko moderazioak dakar zenbatetsiriko gastuaren %0,7ko jaitsiera aurreko hiruhilekoaren aldean.

Azken Kontsumoko Gastua (Herri Administrazioen Azken Kontsumoko Gastua eta Familia-etxeena) %2,0 gehitu da oro har. 2018ko bigarren hiruhilekoarekiko, %0,1eko hazkundera gertatu da.

Kapital Eraketa Gordina (Inbertsioa) %4,0 gehitu da aurten, zeina %0,4ko gehikuntza den hiruhileko artean. Ez da homogeneoa izan Inbertsioaren osagaien eboluzioa. **Ekipo Ondasunetan eginiko Kapital Finkoaren Eraketa Gordina** %2,9 hazi da urte artean, baina aurreko hiruhilekoaren aldean %1,7 egin du atzera. Aldiz, **Kapital Eraketa Gordinaren Gainerakoek**, zeinak dauden oso lotuak Eraikuntzaren eboluzioarekin, hazkundera bizkortu dute, %4,6raino joanez urte artean. 2018ko bigarren hiruhilekoarekiko, %1,6ko hazkundera da hori.

BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2017		2018		
	III	IV	I	II	III
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	0,6	0,9	0,6	0,5	0,1
Familien eta EZMADE-en azken kontsumo gastua	0,7	0,6	0,7	0,6	0,3
Herri-administrazioen azken kontsumo gastua	0,1	1,8	0,1	0,1	-0,7
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	1,1	1,6	0,5	1,5	0,4
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	1,3	2,0	2,5	0,2	-1,7
Gainerako kapital-eraketa gordina	1,0	1,3	-0,7	2,3	1,6
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESORTAZIOAK	2,4	1,0	1,1	-1,5	1,7
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	2,2	1,5	0,7	-1,3	1,1
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	0,8	0,7	0,8	0,6	0,5

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

BPGren eboluzioari begira **lurraldeetan**, urte artean, Arabako eta Gipuzkoako hazkunderak Euskal AEk bere osoan duenaren gainetik daude, %2,8ko aldakuntza-tasarekin; Bizkaiko hazkundera zenbatetsia %2,4koa izan da. 2018ko bigarren hiruhilekoaren aldean ere positiboki aldatu dira eta %0,5eko tasak lortu dira Araban zein Bizkaian eta %0,6koa Gipuzkoan.

Enpleguan, Lanpostuak Dedikazio Osoko Baliokidetzan neurtua, azken aldietan ikusiriko joera positiboarekin da jarraitzen, %2,0ko tasarekin urte artean eta %0,4koarekin aurreko hiruhilekoarekiko. Bilakaera positibo hori zor zaie Industrian, Eraikuntzan eta Zerbitzuen sektorean sorturiko lanpostuei, %1,8ko, %3,8ko eta %1,9ko gehikuntzekin, hurrenez hurren. Eraikuntzaren kasuan hazkundera bizkortu egin da, baina Zerbitzuetan moderatuagoa da igoera aurreko hiruhilekoaren aldean; Industrian mantendu da lanpostuak sortzeko erritmoa. Aurreko hiruhilekoaren aldean, nabarmendu da Eraikuntzaren sektorea ere, %2,0ko hazkunderarekin; aldakuntza hori %0,9koa eta %0,1koa da Industrian eta Zerbitzuetan. Lehen sektorean eboluzioa negatiboa da, bai urte artean bai hiruhileko artean (%1,5 eta %2,0, hurrenez hurren).

Enpleguak gora egin du hiru **lurraldeetan**: Araban %2,2 hazi da, Gipuzkoan %2,1 eta Bizkaian %1,8.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62